

Aurrera !



Informatika eta Telekomunikazioetako Teknologia Berriak Jendarteratzeko Aldizkaria

ITZko Bulego Teknologikoak argitaratua

8. zk.

2002ko Ekaina

Bidali zuen iradokizunak helbide honetara: aurrera@ej-gv.es

Aurkibidea

- ✓ eGovernment
2. or.
- ✓ DBLO
6. or.
- ✓ Alboan:
Kultura Saila
Linux Mandrake
euskaraz
10. or.
- ✓ Laburrak:
Galileo
Linux aurrera
Administrazioan
12. or.

Honakoan aurkezten dizkizuegun gaien izenburuak eGovernment eta DBLO dira. AURRERA buletinaren edukiak hautatzen ditugun bakoitzean bezalaxe, gaurkotasun handiko gaiak direla eta guztiontzat oso interesgarriak izan daitezkeela uste dugu.

Datu Pertsonalak Babesteko Lege Organikoari (DBLO) buruzko artikuluak gaurkotasun handia du egunotan Eusko Jaurlaritzan. Izan ere, ekainaren amaiera aldean, Datuak Babesteko Agentziak ezarritako eskakizunetako bat betetzeko epea amaitu da. Dagokion artikuluan jorratuko dugu gai hori.

eGovernment edo Administrazio Publiko Elektronikoa terminoaren barruan, sail eta organismo autonomoetan gaur egun garatzen ari diren proiektuetako batzuk bil daitezke. Nolanahi ere, oraingoan ez dugu gure adibideetan oinarritu nahi izan. Aurrerago ikusiko duzue, gure inguruneko administrazioetan egiten ari diren lana azpimarratu dugu, lan hori orientazio eta motibazio gisa baliagarria izan baitezakegu gure erronkei aurre egiteko garaian.

Bukatzeko, zenbait ikerketaren arabera, hainbat herrialdetako administrazio publikoetan **Linux** sistema eragilea hartzen ari den garrantzia dela eta, Alboan eta Laburrak sailetan tartetxo bat eskaini nahi izan diogu.



eGOVERNMENT

IKTen (Informazio eta Komunikazio Teknologiak) bultzada geldiezinaren aurrean, Administrazioak ezin dio atzea eman gero eta beharrezkoagoa den arazoari: herritarraren zerbitzura lan egiteko hartutako konpromisoa betetzeko asmoz, jardun-esparru handiagoak hartzeko beharra bateragarri egitea **XXI. mendeko Administrazioak** eskatzen duen kostuen murrizketarekin eta prozesuen arrazionalizazioarekin.



HIZTEGIA

⁽¹⁾ **eEurope ekintza-plana:**

Batzordeak 1999ko abenduan Helsinkiko (Finlandia) gailurrean aurkeztutako ekimena, Kontseiluak Feira-n (Portugal) 2000ko ekainean egindako bilera onartutakoa, Informazio Gizartean Europako Batasuneko herritar guztiak barne hartzeko eta, administrazio publikoen arloan, eraginkortasuna hobetu, kostuak murriztu eta prozesu eta izapide burokratikoaren garrantasuna eta bizkortasuna areagotzeko asmoz.

Espainiako Gobernuak ere gai horren inguruan bere asmoak adierazi ditu **InfoXXI** ekimenaren bitartez (lehen faseak 2000tik 2003ra bitarteko aldia hartzen du). Aipatutako ekimenak zabal dihardu Administrazioari buruz eta bere zerbitzuak herritarrei eskaintzeko Interneten premiari buruz.

<http://www.infoxxi.es/>

Europako Batasunak sustatutako ekimenen barruan eta **eEurope ekintza-plana**⁽¹⁾ bitartez, besteak beste, izen hau daraman proiektua barne hartzen da:

GOBERNU ELEKTRONIKOA

Azken helburua administrazio publikoak (zentrala, autonomikoa edo tokikoa) **eraginkorragoak** izan daitezen lortzea da.

URRATSAK:

Adituen arabera, edozein administrazio zenbait urrats eman behar ditu "heldutasun elektronikoa" lortu aurretik:

1.- **Webgunea/Informazioa:** lehen urrats honetan, zerbitzu publikoei buruzko on line informazioa eman behar da. Ildo horretatik, administrazio publikoek pixkanaka-pixkanaka herritarrekiko/bezeroekiko **sarbide eta harreman berriak** finkatu dituzte (e-mail, web, call center, SMS, ...).

2.- **Ataria/Elkarreragina:** herritarrarekin elkarreraginean jardun behar du, formularioak deskargatzeko aukera emanez.

3.- **Leihatila Bakarra/Transakzioak:** transakzio telematikoak eta lineako zerbitzuak (erabakiak, ordainketak, etab.) ahalbidetu behar ditu.

4.- **eAdministrazioa:** administrazio guztiak bateratzea.

HELBURUAK:

-- Administrazioa berritzea, herritarrarengana **hurbiltzea** eta zerbitzuaren eraginkortasuna eta kalitatea hobetzea.

-- Administrazioarekin izapideak egiteko erraztasunak ematea.

Europako Batasunaren arabera, eAdministrazioak **gutxieneko zerbitzu** batzuk eskaini behar ditu. Honela sailka ditzakegu:

- 1. Zerga-bilketakoak:** BEZ zerga, aduanetakoa, Gizarte Segurantzakoak, etab. sartzea.
- 2. Erregistrokoak:** autoen matrikulazioa, jaiotzako/ezkontzako ziurtagiriak, sozietate berriak erregistratzea, estatistika ofizialeko datuak bidaltzea, etab.
- 3. Herritarrarentzako erraztasunak:** lana bilatzea, liburutegi publikoak, polizia egindako salaketak, osasun-zerbitzuak, medikuarengana joateko ordua eskatzea, etab.
- 4. Diru-sarrerak:** Gizarte Segurantzaren laguntzak, langabezia-subsidioak, familia-laguntza, erosketa publikoak, etab.
- 5. Dokumentuak bideratzea:** dokumentu pertsonalak, pasaportea eta gidabaimena, unibertsitate-matrikulazioa, obra-lizentziak eskatzea, etab.

ESKAKI ZUNA:

Egindako azterlanetan antzemandako oztopo nagusietakoa edozein administraziotara (zerga-administrazioa, ekonomikoa, autonomikoa edo tokikoa) jotzeko egokia izango den **SINADURA ELEKTRONIKORIK** ezarena da.

Baliabide horrek herritarra identifikatu eta kautotzeko bidea emango luke eta, horrela, datuak **konfidentzialak** eta erabat babestuek eta, ondorioz, **ukaezinak** izatea ziurtatuko litzateke.

EUROPAN⁽²⁾:

- **Suedia:** duela urte batzuk Suediako ataria Europar aitzindari izan zen izapideak epe barruan bete ahal izateko beharrezko informazioa herritarren esku uzten; eta lehenengo ere izan zen formularioak eta dokumentuak Interneten jartzen, bete eta administrazio-bulegoetara eraman aurretik herritarra horiekin ohitzeko. Baina gaur egun beste administrazio batzuek aurrea hartu diote.



- **Alemania:** 2005. urterako zerbitzu federalen %100 on line jartzeko asmoa du.

eEurope 2005 planaren lehen pausoak.

eEurope 2005 ekintza-plan berriak, Europako herritar guztientzat Informazio Gizartea sustatzekoak, Europako Batasuneko Telekomunikazioen eta Informazio Gizartearen ministerioen babesa izan zuen.

Datozen urteetan erabat hedatuta egon beharko duen **banda zabaleko** azpiegituran oinarritutako zerbitzu, aplikazio eta eduki seguruen pizgarria sustatzea izan da Kontseiluaren lehentasuneko helburuetakoa. Horretarako mota orotako plataformak eta sarbide-sistemak (**telebista digitalerako** kable-sareak eta **UMTS**,

besteak beste) erabiltzea aurreikusi da.

Hori lortzeko, garatu beharreko **jardunak** lau arlo hauetan egituratzen dira: neurri politikoak (lineako zerbitzu publikoetan, negozio elektronikoan, informazio seguruaren azpiegituran eta banda zabalean izango dute eragina); praktika egokien trukea; konparazio-azterlanak (benchmarking); eta koordinazioa.

Era berean, administrazio elektronikoa, irakaskuntza elektronikoa, osasun-zerbitzu elektronikoa, negozio elektronikoak, sareetako segurtasuna eta banda zabala sei **jardun-arlo** zehatz izango dira.

- **Holanda:** aurtien zerbitzuen gutxienez %25 sarean jartzea espero du.
- **Italia:** urte honetan zehar (2002) herritarrei zuzendutako atari bat atera nahi du, enpresentzat 2001ean egin bezala.
- **Finlandia:** NAN birtualaren proiektua Estatuan eta Europako Batasunaren barruan oraintsu aztertzen hasia bada ere, beste herrialde batzuetan, hala nola Finlandian, dagoeneko hedatuta dago herritarren artean.
- Bai **Danimarkan** bai eta **Erresuma Batuan** ere, eGovernment proiektua lehentasuneko gaien artean dago euren agendan. Horri eta azken hilabeteetan egindako lanari esker, analisten ustez herrialde horietan eGovernment proiektua dagoeneko gauzatu dagoela esan daiteke.

ADMINISTRAZIO ZENTRALA:

Argitaratutako azterlanen arabera, Administrazio Zentralak on line eskainitako zerbitzuak 118 dira eta horietatik 104 dagoeneko erabilgarri daude. Hala ere, esan beharra dago batzuk ez daudela behar adina garatuta.

Ildo horretatik, aipatzekoa da **2001eko biztanleriaren eta**



HIZTEGIA

⁽²⁾ Hona hemen zenbait administrazio garatutako web-orriak:

Danimarka:

www.danmark.dk

Espainia:

www.administracion.es

Frantzia:

www.service-public.fr

Italia:

www.paforum.net

Erresuma Batua:

www.ukonline.gov.uk

Suedia:

www.statskontoret.se/egov

Era berean, Europa barruan, adituek lana bilatzeko ondoko zerbitzu hauek azpimarratu dituzte:

- APEC eta ANPE, Frantzia.

- Jobbank, Britainia Handian.

www.employmentservice.gov.uk

- VDAB, Belgikan.

- **LANBIDE**, Euskadin.

www.lanbide.net



HIZTEGIA

⁽³⁾ Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu ondoko webguneak:

Zerga Agentzia:

<http://www.aeat.es>

Silice proiektua:

www.map.es/csi/silice.htm

AOC:

<http://www.gencat.es>

etxebizitzaren errolda Internet bidez egiteko aukera, Estatistika Institutu Nazionalaren bitartez (mundu osoan lehena izan da).

Zerga Agentzia⁽³⁾: Era berean, aholkularitza-enpresen ustez, Zerga Administrazioarako Estatuko Agentziaren bitartez **zergak ordaintzeko** aukera on line zerbitzurik helduena da, eta eGovernment kontzeptuari gehien egokitzen zaiona. Iaz, enpresek errentaren aitortpena Internet bidez aurkeztu ahal izan zuten eta, gaur egun, partikularrek ere jadanik bete beharreko inprimakiak deskargatzeko eta batzuk ordenagailutik bertatik aurkeztu eta ordaintzeko ere aukera badute. Azken horien kasuan ziurtagapen pertsonala izan behar da, **sinadura elektronikoa**, Moneta eta Tinbre Fabrika Nazionalak ematen duena (Zerga Agentziak aukeratutako organismoa da, zerbitzu horietan erabiltzen diren ziurtagiriak luzatu, baliogabetu eta berritzeko) eta Posta eta Telegrafoak erakundeak banatzen duena.

SILICE⁽³⁾ (kontratazio eta lizitazio elektronikorako sistema) proiektua. Ekonomia Ministerioak eta Administrazio Publikoetakoak garatutako sistema, Kanarietako Autonomia Erkidegoan eredu zko proiektu gisa dagoeneko ezarritakoa.

Administrazio Zentralaren berariazko konponbideak (**Cercan@** eta **Tramit@**): formularioak automatikoki sortzea, Internet bidez izapideak egin eta kudeatzea, eragiketa automatikoen euskarria eta administrazioen artean espedienteei buruzko informazioa trukitzea.

Barne Ministerioak luzatuko duen **NAN digitalari** esker, herritarrak segurtasunez elkarreragiteko aukera izango du Interneten, nortasun propioaz, mundu fisikoan bezalaxe, eta

ukorik gabe edozein motatako transakzio edo izapide egin ahal izango du.

EKIMEN AUTONOMIKOAK

Egungo batez besteko mailaren gainetik, autonomia-erkidego batzuk nabarmendu egiten dira euren proiektu berritzaileekin. Horien artean Katalunia aipatu beharra dago.

KATALUNIA

Ziurtagapen digitaleko estandar baten zain, **Kataluniako Administrazioa** leihatila bakarrari buruzko proiektuan murgildu da.



Kataluniako Administrazio Irekiak (Administració Oberta de Catalunya – **AOC**)⁽³⁾ Kataluniako administrazio guztiak bilduko lituzke eta urtebete baino lehen

erabat gauzatzeko asmoa du. Sarbide-atari bakarra eta herritarrak identifikatzeko txartel elektronikoak dira erronka horren ezaugarri nagusiak.

Bien bitartean, Internet bidez izapideak eta kudeaketak eskaintzen jarraitzen dute, kasu gehin-gehienetan horiek osorik egiteko aukerarik ez badago ere, udal-zergak eta bigarren eskuko ibilgailuak eskualdatzeko zergak ordaintzekoak salbuetsita. Horiek La Caixa-ren bitartez bere osotasunean ordaindu daitezke.

Azken helburua zergadunari bere betebeharrak betetzeko erraztasunak ematea da. Horretarako, aitortpenak **aurkeztu eta ordaintzeko**, horien egoera kontsultatzeko, errekurtsioak jartzeko, itzulketak eta ziurtagiriak eskatzeko eta inprimakiak deskargatzeko aukera ematen zaio.

Gainera, katalanek Internet bidez aurki egin ahal izango dituzten 32 kudeaketen artean, familia ugariaren titulua berritzeko, Osasun Sailari erreklamazioak egiteko edo

etxebizitzarako laguntzak eskatzekoa daude. Aipatutako kudeaketak osasuntxartelaren kodeari lotutako pasahitzaren bidez egingo dira.

VALENTZIA

Valentziako Erkidegoak Administrazioa berritzeko handinahiko plana dauka. PEMAV izena du eta 1996an sortua da.

Valentziako Generalitat-en ataria ere aipagarrienen artean dago. Administrazioaren arlo guztien Internet bidezko informazioa eta zerbitzuak webgune bakar batean biltzea du helburu.

Plan horren barruan Infoville proiektu historikoa dago. Horren asmoa herritarra Informazio Gizartera hurbiltzea da, erkidego bakoitzeko udalerrri jakin baten barruan (herritarrak, Internet bidez, bertako egunkaria irakurtzeko, seme-alaben oharrak kontsultatzeko, medikuari ordua eskatzeko, herriko dendetan erosteko, etab. aukera du). Oraingoz bederatziz udalerrri atxiki zaizkio proiektuari. Europako 9 eskualdetan abiarazi da eta Iberoamerikara esportatzeko asmoa dute.

GALIZIA

Galiziako Xunta dagoeneko enpresaz erbitzuen eskaintzan murgilduta dago. Horretarako, ereduak proba gisa eta Espainiako Ziurtagiriaz (CERES) baliatuz, ahaldunak kontratisten erregistroa kontsultatzeko eta espediente pertsonalen jarraipena egiteko aukera dauka. Dena den, zerbitzu horiek herritarren artean hedatzea da helburua, ordenagailu sarbideduna ez dutenentzat ekipoen autozerbitzuko guneak gaituta.

Espedienteen zerbitzua aurki

hirugarrengoei eskaintzea aurrekusi da.

Hegoamerikara eta Europara migratutako galiziarren egoera berezia dela eta, bertako gobernuaren planen artean, herritar horiei euren bizitokitik administrazio-prozesuei ekiteko aukera ematea aurrekusi da.

Azkenik, aipatzekoa da administrazio-nortasun digitala izenekoa sortzeko proiektua. Horren helburua e-administrazioaren arazo nagusietako bat konpontzea da, dokumentazioa entregatzearena hain zuzen ere.

BALEAR UHARTEAK

Balear Erkidegoan, Palman abiarazitako ereduak proiektu bat nabarmentzen da. Horren bidez, ekintzaileak sozietate-izenak kontsultatzeko eta akreditazioak bideratzeko aukera dauka. Ekimen hori Estatuko Administrazio Nagusiaren Enpresa Leihatila Bakarrari buruzko proiektuan barne hartuta dago.

ONDORIOAK:

Administrazioaren barruan oraindik behar adina garatu ez den alderdietako bat Internet bidezko **lizitazio elektronikoa**ri buruzkoa da.

Oro har, lehiaketen **publizitatea** eta Internet bidez horien **pleguak** deskargatzeko aukera besterik ez da garatu bete-betean. Baina, arian-arian, aurrera egin da lehiaketa horietan **eskaintzak** aurkezteko edo plikak irekitzeko aukeran.

Arlo horretan aurrera egin ahal izateko beharrezkoa da **ziurtagiri digitala** izenekoa erabiltzea, eta **sinatu eta zifratzeko** horrek ematen dituen aukerez baliatzea. Gainera, dagokion araudi juridikoa egokitu beharra dago.



TOKI -ESPARRUA

Administrazio Elektronikoa buruz hitz egitean kontuan hartu beharreko beste alderdi bat hurbilen dugun administrazioari buruzkoa da: **Tokikoa**.

Oro har, udalen web-orriak benetako informazioguneak dira, herritarra zergak ordaintzeko egunei, obralizentzien inguruko lege eta araudiei, etab. buruz egunean egoteko.

Esparru horretan garapen-maila denetakoa bada ere, webgune askok biztanleei aukera ematen diete Sarearen bidez errolda eta bestelako dokumentuak eskatzeko, bai eta udal-liburutegien datu-baseetan sartzeko eta udal-gobernuaren kudeaketan parte hartzeko ere, e-mail bidez iradokizunak edo kexak adierazita. Zenbait kasutan ordainketak bankuan helbideratuz egin daitezke.


Bartzelonako Udala

<http://www.bcn.es>



DBLO

DBLO⁽⁴⁾ legeak eta datu pertsonalak barne hartzen dituzten Fitxategi Automatizatuen Segurtasun Neurriei buruzko Araudiak **erakunde publikoei** exijitu egiten diete euren informazio-sistemetan datuak babesteari buruzko neurri teknikoak eta antolamendukoak hartzeko.



HIZTEGIA

⁽⁴⁾ **DBLO**: 15/1999 Lege Organikoa, XII/13koa, Datu Pertsonalak Babestekoa (**DBLO**), eta 994/1999 Errege Dekretua, VI/11koa, datu pertsonalak barne hartzen dituzten Fitxategi Automatizatuen Segurtasun Neurriei buruzko **Araudia** onartzekoa. Horiek dira oinarritzko bi xedapenak, euren lanaren jardunean datu pertsonalak tratatzen dituzten enpresa eta profesional guztiek nahitaez bete beharreko lege-esparrua osatzen dutenak.

Interneten hedapenak, teknologia berrien bilakaerak eta informazio pertsonala erraz eskuratzeko aukerak agerian utzi dute azken urteotan **persona fisikoen intimitate-eskubidea** gordetzeko gero eta premia handiagoa.

Adibide gisa, enpresen eta profesionalen %100ek datu pertsonalak erabiltzen dituzte ohiko lan-jardunean.



Urrutira joan gabe, datu-base bateko bezeroen zerrenda edo enpresako langileen zerrenda datu pertsonalen fitxategiak dira, araudiaren eta bertan jasotako betebeharren eta, arau-hauste kasuan, zigorren eraginpean daudenak bete-betean.

Artikulu honen asmoa ez da DBLO legea zehatz-mehatz analizatu eta/edo aztertzea, baizik eta lanpostuan beharbada egunero erabiltzen ditugun datuei buruzko arau oinarritzkoen inguruan ohartaraztea.

Legeak berak fitxategien erantzule bat jartzera behartzen badu ere (erantzukizuna izendatutako pertsonarena izango da), guztion eginkizuna da finkatutako arauak betetzen laguntzea eta aurkitu

dezakegun edozein gorabeheraren berri ematea.

Horregatik, edizio honetan azpimarratu nahi dugu ezinbestekoa dela **barne-pertsonalaren** (zuek) lankidetzara aktiboa mota horretako proiektuak zehaztu, garatu eta betetzeko garaian, legeak ezarritakoa behar bezala betetzea ziurtatzeko asmoz. Horretarako, geure erakundea eta horren egitura, prozedurak eta inplikaturako pertsonala ezagutu behar ditugu guztiok.

LEGEAREN ESPARRUA:

Beraz, aipaturako Lege Organikoa indarrean jarri zenetik, **identifikatutako edo identifikatutako** pertsona fisikoen datuak biltzen dituen edozein fitxategi, informatikoa ala ez, edota enpresakoa edo beste mota batekoa izanik ere, printzipioz araudiaren aplikazio-esparruaren barruan dagoela esan daiteke eta, horrenbestez, araudi horren bidez ezarritako printzipioen, eskakizunen eta erregimenaren mende.



SEGURTASUN-MAILAK:

Araudiak hiru segurtasun-maila ezartzen ditu, **tratatutako informazioa** eta informazio horren konfidentzialtasuna eta babesa zein neurritaraino bermatu behar den kontuan izanda:


- **OINARRIZKO MAILA:** aplikazio-esparruaren barruan dagoen edozein fitxategiri berez aplikatzekoa da.
- **MAILA ERTAINA:** arau-hauste administratiboei edo zigorrozkoei, ogasun publikoari, finantza-zerbitzuei eta ondare- eta kreditu-kaudimenari buruzko datuak jasotzen dituzten fitxategiek osatutakoa da.

Maila hau betetzeko ezarritako epea 2000ko ekainean amaitu zen.

- **GOIKO MAILA:** ideologia, erlijio, sinesmen, arraza-jatorri, osasun edo bizitza sexualari buruzko datuak eta dagokion pertsonaren baimenik gabe bildutako polizia-datuak jasotzen dituzten fitxategiek osatutakoa da.

Kasu honetan, ezarritako epea 2002ko ekainaren 26ra artekoa da.

Aurreko maila guztiek zenbait eskakizun betetzera behartzen dute eta, AURRERA buletina dibulgaziokoa besterik ez denez, ez ditugu zehaztuko oraingoan.



HIZTEGIA

⁽⁵⁾ Datuak Babesteko Agentziaren webgunea:

www.agenciaprotecciondatos.org

DBLO eta Araudia:

DBLO legeak zenbait betebeharrak ezartzen ditu gai hauen inguruan: datuen bilketa, baimena, gordetzea, mantentzea, erabilera, bereziki babestutako datuak, datuen komunikazioa edo lagapena, sarbidea, zuzenketa, fitxategiak sortzea, Datuak Babesteko Agentzian alta ematea, etab.

Bestalde, **Araudiak** ondoko hauen segurtasuna ziurtatzeko nahitaez bete beharreko neurriak ezartzen ditu: datu pertsonalen tratamendu automatizatuan barne hartutako fitxategi automatizatuak, tratamendu-zentroak, lokalak, ekipoak, sistemak, programak eta pertsonak.

Definizioak Lege Organikoaren arabera:

a) **Datu pertsonal: identifikatutako edo identifika daitezkeen** pertsona fisikoei buruzko edozein informazio.

b) **Fitxategi:** datu pertsonalen antolatutako multzo oro, horren sorrera, gordetzeko era, antolamendua eta sarbidea edozein izanik ere.

c) **Datu-tratamendu:** eragiketa edo prozedura automatikoa ala ez, komunikazioen, kontsulten, interkonexioen eta transferentzien ondoriozko datuak bildu, grabatu, gorde, landu, aldatu, blokeatu, deuseztatu eta lagatzeko bidea ematen duena.

d) **Fitxategiaren edo tratamenduaren erantzule:** tratamenduaren xedeari, edukiari eta erabilerari buruz erabakitzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa nahiz pribatua, edo administrazio-organoa.


e) **Interesatu:** tratamenduaren xede diren datuen titular den pertsona fisikoa.

f) **Disoziazio-prozedura:** datu pertsonalen tratamendua, ematen duen informazioa identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsonarekin lotu ezin daitezkeen moduan.



g) **Tratamenduaren arduradun:** tratamenduaren erantzulearen kontura, bakarrik edo elkarrekin, datu pertsonalak tratatzen dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintaritza publikoa, zerbitzua edo beste edozein organismo.

Datuak Babesteko Agentzia ⁽⁵⁾



HIZTEGIA

⁽⁶⁾ Indarrean dauden arauak betetzeko asmoz, Eusko Jaurlaritzak adierazpen bat egin dio **Datuak Babesteko Agentziari**, zehazki, Ogasun eta Herri Administrazio Sailaren bitartez, aipatutako sailaren ardurapean **Outlook** produktuaren uneko eta etorkizuneko instalazio fisiko guztiak babesteko.

Gainera, une honetan, "Datu pertsonalak barne hartzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren fitxategien segurtasuna antolatzeari buruzko dokumentua" izenekoa lantzen ari dira, ondoren Jaurlaritzaren Kontseiluak onar dezan.

ALDERDI ZEHATZAK:

Fitxategi fisiko (edo datu-base) batek **aitortu beharreko fitxategi bat baino gehiago** dauka. Hori, oro har, sistema integratuetan (adibidez, SAP paketea) gertatu ohi da. Sistema integratuetan, sistema berean kolektibo desberdinei buruzko fitxategi logikoak biltzen dira, erantzule desberdinekin. Hau da, datu-base berean bezeroei, hornitzaileei, bezero izan daitezkeenei eta, baita ere, bertako pertsonalari buruzko datuak barne hartzen dira.

Jarraian, kasu jakin batzuk zehaztuko ditugu, DBLO legeak gudan zer-nolako eragina izan dezakeen argiago ikusteko.

Harremanetan jartzeko pertsonak

Era berean, **harremanetan jartzeko pertsonaren izen-deiturak** eta haren sozietatearen izena, sozietatearen titular gisa izanik ere, barne hartzen dituzten fitxategiak Datuak Babesteko Agentziari jakinarazi eta aitortu behar zaizkio.

Beraz, oro har, **pertsona fisikoei buruzko datuak dituen fitxategi oro** DBAri jakinarazi behar zaio, hala nola, enpresa batean harremanetan jartzeko pertsonari buruzko datuen kasuan, nahiz eta fitxategiaren berariazko xedea harremanetan jartzea ez izan.

Posta elektronikoa

Eusko Jaurlaritzako sail eta organismo autonomo guztietan estandar komun gisa erabiltzen den **Outlook** aplikazioak zenbait arazo planteatzen ditu datu pertsonalak erabiltzeari dagokionez.

DBLOren kasuan, legeak hala aginduta, gutxienez bi urtean behin ikuskapena egin behar da.

Aplikazio horretan **Harreman-agenda** edo **Helbide-liburu** bat dago. Bertan pertsonari buruzko informazioa gorde daiteke, pertsonalaren lan-jardunean laguntza tresna gisa erabiltzen dena.

Informazio horrek, pertsona identifikatzekoak besterik ez diren datuak ez ezik (hala nola, izen-deiturak, helbidea edo telefono partikularra), enpleguari edo karrera administratiboari buruzko datuak ere (besteak beste, harremanetan jartzeko pertsonak zein enpresatan lan egiten duen, edo bertan zein kargu duen) biltzen ditu. Gainera, pertsonari buruzko edozein motatako informazio osagarri gordetzeko aukera dago.

Beraz, harreman-agenda edo helbide-liburu hori **datu pertsonalak dituen fitxategi automatizatua** da eta, horrenbestez, adierazitako organismoari jakinarazi behar zaio, DBLO legearen arabera.⁽⁶⁾

Bildutako datuen mota kontuan izanda, datu pertsonalak barne hartzen dituzten Fitxategi Automatizatuen Segurtasun Neurriei buruzko Araudian jasotako **oinarrizko mailako** segurtasun-neurriak bete behar ditu fitxategi horrek.

Bestalde, **pertsonen ideologia, afiliazio sindikal, erlijio, sinesmen, arraza-jatorri edo bizitza sexualari** buruzko datu pertsonalak sartzea erabat **debekatuta** dago, harreman-fitxategiaren helburutik kanpo dagoelako. Ondorioz, debekatuta dago DBLO legearen arabera.



Erantzukizun pertsonalak

Erabiltzaileak pertsonaren identifikazio-datuak eta helbideak edo telefonoak besterik ez ditu sartuko tresna ofimatikoen (gure kasuan, **Outlook**) harreman-agendetan.

Zerrendak hedatzea

Eskura ditugun erakundearen telefonoekin eta/edo posta elektronikoko helbideekin enplegatuen zerrendak hedatuz gero, DBAk bi kasu hauek bereizten ditu:

- Zerrenda enpresa barruan hedatzen bada (esaterako, bere **Intraneten** argitaratuz, gure kasuan JAKINAN), laneko kontratu-harremanak babestutako xedeen barruan onartutzat hartzen da eta horretarako ez da beharrezkoa alde aurretik enplegatuaren baimena eskatzea.
- Zerrenda enpresatik kanpo hedatzen bada (adibidez, **Interneten** argitaratuz), nahiz eta enpresak esleitutako telefonoak eta/edo posta-helbideak besterik ez jaso, horrek kontratu-harremanak babestutako xedek gainditzen ditu eta **aldez aurretik enplegatuaren baimena** behar du.

Interneteko argitalpena

Sarritan, enpresek eta oro har jendeak uste dute Interneten argitaratzen den guztia jaso eta mugarik gabe tratatzeko eskubidea dagoela. Ez da hala, **Internet ez da sarbide-iturri publikoa**, DBLO legeak zehaztu bezala. Horregatik, arazoak

saihesteko, Interneten datu pertsonalak argitaratzen direnean, bereziki zerrendak, telefono-aurkibideak eta antzekoak, komeni da ohar bat eranstea, jakinaraziz datu horiek helburu jakin batekin argitaratu direla eta debekatuta dagoela horiek edozein euskarritara jaitea eta ondoren edozein trataera ematea.

Aldi baterako fitxategiak

- ✓ Gure eguneroko lanean sortzen ditugun informazio pertsonala kudeatzeko aldi baterako fitxategiek ere bete beharko dute Araudian ezarritakoa.
- ✓ Aldi baterako fitxategi guztiak ezabatu egingo dira horiek sortu izanaren helburuetarako beharrezkoak ez direnean.

ONDORIOA:

Hasiera batean, DBLO⁽⁷⁾ legea betetzeak gure lanean eragin handirik izango ez duela pentsa badezakegu ere, aurreko adibideak azaldu ondoren, agerian da mota horretako arauak hasieran uste baino ondorio handiagoa dutela gugan. Horregatik, edozein zalantza sortuz gero, komeni da aipatutako xedapenak aplikatzeko arduradunengana jotzea, haiek ezagutzen baitituzte hoberen legezko arauak eta salbuespenak ere.



HIZTEGIA

⁽⁷⁾ Ziur aski irakurleotako askok **DTALO** legeari buruz entzungo zuten. Datuen Tratamendu Automatizatu-ari buruzko urriaren 29ko 5/92 Lege Organikoa da, DBLOren aurrekoa.

DTALO legea Europar **aitzindari** izan zen, baina berrikusi egin behar izan zuten, dagokion Europako Arteztarautan ezarritako aginduei egokitzeko. Hala sortu da DBLO berria, beste hura indargabetu eta ordezkatzen duena.

92/10/29. DTALO onartu zen.

94/06/20. Garapen-araudia onartu zen, DTALO legea praktikan aplikatzeko; hala ere, oso alderdi garrantzitsua falta zitzaion, segurtasuna hain zuzen.

95/10/24. Datu pertsonalen tratamenduari eta horien zirkulazio libreaki dago-kienez pertsonak babesteari buruzko 95/46/EEE Arteztarautaua argitaratu zen.

99/06/25. Segurtasun Araudia onartu zen; funtsezkoa DTALO eraginkor egiteko.

99/12/13. DBLO onartu zen.



ALBOAN: Kultura Saila



LINUX MANDRAKE EUSKARAZ

Honakoan aditzera emango dugun proiektua Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak garatu du. **Linux Mandrake sistema eragilearen** euskarazko itzulpena, Elhuyar eta UZEI elkarteek egindakoa, gainbegiratzea du helburu.

Bi organismoek esperientzia zabala dute arlo horretan. Izan ere, lehen ere antzeko lanak egin dituzte Microsoft produktuekin, hala nola: Office 2000, Word 6.0, Windows 95/98 edo Internet Explorer 4.



Proiektu horri esker, aurki Administrazioak 8.2 bertsioa aipaturako sistema eragilearen **2.000 CD** banatuko ditu, batez ere eskoletan. Softwarearen euskarazko bertsioari dagokion eskuliburua erantsiko zaio.



Era berean, Mandrake-rekin batera datozen aplikazio hauek itzuli dituzte:

- Mahaigaineko **Gnome** ingurune grafikoak
- **Mozilla** 0.9.8 nabigatzailea
- **Evolution** 1.0 posta-bezeroa

MANDRAKE:



Adituen arabera, sistema eragile honen ezaugarri nagusia amaierako produktuaren kalitate egokia da, **Red Hat** izeneko beste banaketa batean oinarrituta baitago. Horri esker, instalatu eta konfiguratzeko prozesuak merkatuan dauden errazenetakoak dira.

Banaketa osoak 7 CD hartzen ditu.

GNOME:

GNU Object Model Environment-en siglak dira GNOME. Hasiera batean Linux-en helburua ez zen mahaigaineko sistema eragilea izatea, zerbitzarien sistema eragilea baizik. Hala ere, sistema estandarren hautabide gisa hedatu ahala, erabiltzaileak mahaigaineko kudeatzaile grafikoak eskatzen joan dira Linux inguruneetarako. Guztien artean aipatzekoak dira orain itzultakoa eta KDE izenekoak.



Gnome-ren bertsio berria (proban) 2.0 beta 4 da. Hastapenak 1999ko martxokoak dira (23 MB-ko iturburu-kode konprimitua).

Mahaigaineko edozein kudeatzaile bezala, ondoko eragiketa hauek onartzen ditu: aplikazioen artean "arrastatu eta itsastea", saioren kontrola, nazioarteko konfigurazioa, kontrol-panel antolatua, etab.

Gnome garatzeko, besteak beste, ondoko elementu hauek erabili dira: CORBA, C eta XML.

Beste banaketa batzuk:

Mandrake: www.linux-mandrake.com/es

Redhat: www.redhat.com

Debian: www.es.debian.org

SuSE: www.suse.de/es/

Caldera: www.calderasystems.com

Slackware: www.slackware.com

Conectiva: <http://es.conectiva.com>

Hispafuentes: www.hispafuentes.com/home.php

Esware: www.esware.com

MKLinux: (Macintosh-entzat) www.mklinux.org

LINUX-EN HISTORIA LABURRA:

LINUX 1991n azaldu zen. Garai hartan, **Linus Benedict Torvalds** izeneko Helsinkiko Unibertsitateko informatika-ikaslea sistema operatibo horren lehen kode-lineak programatzen hasi zen.

Linux Unix-en klonikoa da.

Eta AT&T konpainiaren BELL laborategietan sortu zen UNIX, 1969an.

Hasiera horretan, Andrew S. Tanenbaum irakasleak 1980an garatutako **MINIX** sisteman (Unix simulatzen zuen) inspiratu zen.

1991ko urriaren 5ean, Linusek Linux-en lehen bertsio "ofiziala" iragarri zuen, 0.002 bertsioa.

0.03 bertsioaren ondoren, Linusek 0.10 zenbakiraino salto egin zuen. Orduan, Interneti esker, proiektuan programatzaile gehiago hasi ziren lanean eta, zenbait eguneratze egin ondoren, 0.95 bertsiora pasa zen (1992ko martxoa). Urtebete baino gehiago igaro ondoren (1993ko abendua), sistemaren nukleoa 0.99 bertsioan zegoen. 1.0 bertsioa 1994ko martxoaren 14an iritsi zen. Gaur egun, nukleoaren bertsioa 2.4.x da.



EZAUGARRIAK:

Hona hemen edozein Linux sistema beste inguruneetatik bereizten duten zenbait ezaugarri:

- Multiataza
- Multierabiltzailea
- Multiplataforma
- Multiprozesadorea
- Memoriaren babes

prozesu artean

- Edozein unetan memoria birtual gehiago eransteko aukera
- 387ko emulazioa nukleoan
- Kotsola birtual anitzak
- Zenbait fitxategi-sistematarako euskarria
- Protokoloak: TCP, IPv4, IPv6, X.25, IPX, etab.

HELBI DEAK:

Elhuyar: www.elhuyar.com

UZEI: www.uzei.com

Gnome: www.es.gnome.org

Mozilla: www.mozilla.org

Evolution: www.ximian.com

Gnu proiektua: www.gnu.org

"Free Software": www.fsf.org

Open Source: www.opensource.org/osd.html

- ✓ Linux-i buruz hitz egitean, nahitaez aipatu beharra dago **Free Software Foundation** (FSF) fundazioaren zeregina. Irabazizko xederik gabeko erakunde hori 1984an sortu zen, banaketa libreko UNIX sistema eragilea garatzeko asmoz.

Sistema horri **GNU** ("GNU's Not Unix"-en –GNU ez da Unix– akronimo errekurtsiboa) izena jarri zioten.

Horretarako, abiarazi ondoren sistema horrek erabiliko zituen utilitateak sortzen hasi zen FSF erakundea. Horregatik, Linux sistema egonkortzat hartu zenean eta sistamarako utilitateak bazeudela jakinda, FSFk garatu baitzituen, gutzia elkartzea besterik ez zen gertatu.

- ✓ FSFren funtsezko ekarpena **GPL lizentzia** (General Public License – Lizentzia Publiko Orokorra–) da. Softwarea banatzeko lizentzia da, programak **askatasunez** banatzeko aukera ematen duena, baldin eta horiekin batera **iturburu-kodea** ere entregatzen bada. Linux GPL lizentziarekin banatzen da. Hala ere, lizentzia horrek ez du esan nahi bere babespean banatutako softwarea dohainekoa denik. Kobratu eta saldu daiteke.



- ✓ Kontuan hartu beharreko beste kontzeptu bat **Banaketak** dira. Horiek erabiltzaileari denbora aurrezteko aukera ematen diote, multzo erabilgarri bat osatzeko asmoz aplikazioak eta nukleoa elkartzeko garaian. Horietako asko merkataritza-enpresek egiten dituzte.

Banaketak Internet bidez doan edo oso merke lor daitezke, banatzen diren euskarria (CD) baino zertxobait garestiago. Banaketek **instalazio-programa** bat barne hartu ohi dute, oro har banaketa egiten duen enpresak sortutakoa, bai eta eskuliburuak, sistema erabili ahal izateko programak edo liburutegiak, kernel bat eta, zenbaitetan, denetako aplikazioak eta euskarri teknikoak ere.

Horregatik, esan daiteke banaketa baten eta bestearen arteko **aldea** bakoitzean bildutakoaren kalitatea dela (instalatzen eta erabiltzen errazagoa, dokumentazioaren kalitatea, liburutegiak behar bezala egiaztatuta egotea eta funtzionatzea, euskarri eraginkorra, etab.). Izan ere, bertsio beraren barruan, kernela/nukleoa –sistema abiarazteko kontroladore guztiak biltzen dituena– berdina da banaketa guztietan.





GALILEO

Gaur egun, satellite bidez aurkitzeko 2 sistema daude, GPS (EEBB) eta GLONASS (Errusia). Bi sistemak hasiera batean xede militarretarako pentsatu ziren, baina egun erabilera zibiletarako ere aplikatzen dira.

Europako Batasuna berorren sistema ari da garatzen, **Galileo** hain zuzen. 1999an sortu zen eta 2008rako erabilgarri egongo dela iragarri dute.



GALILEO 24.000 km-ko altitudetan dauden 30 sateliteko konstelazioan oinarritzen da.

Sistema lurreko estazioekin osatzen da. Horien bitartez, arlo ugaritako erabiltzaileek euren kokapenari buruzko informazioa jaso ahal izango dute.

Aplikazioak

Galileok aireko trafikoaren kalitatea eta segurtasuna hobetzea espero da, kontrola areagotzeko eta aireko espazioa optimizatzeko bidea emango baitu.

Hona hemen etekin handiena aterako dioten beste arlo batzuk:

- Lehorreko garraioa, ibilgailuen edo edukiontzien kokapena monitorizatzeko, ibilgailuak aurkitzeko, ibilbideak bilatzeko, etab. aukera emango baitu.
- Justizia eta aduanak, mugak kudeatu eta kontrolatu ahal izateko.
- Obra publikoak (informazio geografikorako sistemak).
- Pertsonen salbamendua (itsasoko eta mendiko orientazioa, etab.)



LINUX aurrera administrazioan

GNU/Linux lizentzian oinarritutako software libreak gero eta erabiltzaile gehiago ditu.

Adibide gisa, Txinako gobernuak GNU/Linux aukeratu du administrazio osorako sistema eragile gisa. Peru, Mexiko eta Brasil ere bide beretik doaz.

Europar, aipatzekoa da software librea garatu, sustatu eta erabiltzera zuzendutako Alemaniako gobernuaren ekimena.

Bundestag-ek Linux 150 zerbitzaritan instalatuko du eta Windows mahaigainetan batez ere. Linux-ek, besteak beste, e-mail, Groupware, fitxategi eta inprimaketako zerbitzariak kudeatuko ditu. Direktorioen zerbitzua orain arte Microsoft-en Active Directory zen, eta kode irekiko OpenLDAP softwarearekin ordezkatuko da.

Estatuan:

Extremadurako Junta-ko Hezkuntza Salla **Linex** izeneko banaketa propioaren aldekoa da.

Oraintsu, software libreari buruzko "lege-proposamena" aurkeztu dute Kataluniako Administrazio Publikoan.

Bestalde, HispaLINUXeko kideek eta Zientzia eta Teknologia Ministerioko ordezkariak bilera bat egin dute Administrazioan software librea zabaltzeko.

Onurak:

Linux-en aldekoen arabera, onurarik handiena "hornitzailearen independentzia" da, iturburu-kodea duelako. Gainera, administrazioari eta herritarrari segurtasuna eta pribatutasuna ematen diete, aplikazioa osatzen duten kode-linea guztiak ezagutzen dituztelako, kode maltzurak edo zelatariak saihesten dituzten moduan.

Horrez gain, aplikazioak norberaren hizkuntzan garatzeko aukera ematen du, aldezturik diru asko ordainduta hornitzaileen mende egon behar izan gabe.

